

Baliabideak:

ZER DIRA BEHAR DITUZUEN ELEMENTU GARRANTZITSUENAK ZUEN PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?

Gure proiektua funtzionatzeko, nagusiki beste enpresa batekin harreman bat izan behar dugu eta iragarki erakargarriak egin behar ditugu gure bezeroen atenzioa erakartzeko.

Gure ideia da beste enpresa batekin harremanak izatea gure kostuak eta hasieran edukiko ditugun baliabideak hoberenak izan ahal izateko. Horrela gure enpresaren hasierako egoera bultzada handi bat izango du eta arrakasta gehiago lortuko dugu. Behin gure enpresa, arrakasta nahikoa duenean, enpresa horrekin daukagun harremana gutxinaka-gutxinaka alde batera utziko dugu, baina horretarako kontratu bat sinatu behar izango dugu. Kontratu horretan kostuen kontua kontuan hartu behar dugu eta interes bat itzuliko diogu enpresa horrek eskainitako laguntzagatik.